

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### VITORIA-GASTEIZKO UDALA

#### EKONOMIA SUSTAPENAREN, ENPLEGUAREN, MERKATARITZAREN ETA TURISMOAREN SAILA

#### **Vitoria-Gasteizen ekitaldi eta biltzarrak antolatzeko eta hiria kanpoan sustatzeko laguntzak emateko 2022ko deialdi publikoa ebaztea**

I. 2021eko urriaren 1ean onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak Vitoria-Gasteizko Udalaren dirulaguntza-deialdiak arautzen dituzten oinarri orokorrak (2021eko urriaren 29ko ALHAO, 124. zenbakia).

II. 2022ko uztailaren 1ean egindako bilkuran onetsi zituen Tokiko Gobernu Batzarrak 2022an Vitoria-Gasteizen ekitaldi eta biltzarrak antolatzeko eta hiria kanpoan sustatzeko laguntzak emateko udal-programaren deialdi publikoa eta hura arautzeko berariazko oinarriak ere (2022ko uztailaren 22ko ALHAO), norgehiagoka-prozeduraren bitartez tramitatzeko, 100.000,00 euroko zuzkidurarekin, 2022ko ekitaldiko udal aurrekontuko 0810.4331.471.04 partidaren kontura ("hiriaren sustapena").

III. Eskabideak aurkezteko epea amaituta, udaleko zerbitzu teknikoek txostena eman zuten 2022ko abenduaren 20an eta 2023ko urtarrilean 11n, eta bertan jakinarazi zuten epearen barruan 31 eskabide jaso zirela (28 interesatuk aurkeztuta). Eskabide horietako zortzik (8) ez zituzten deialdiaren baldintzak betetzen, eta bik (2) atzera egin zuten prozedura.

IV. Eskabideak aztertu ondoren, hautatze eta jarraipen batzordeak 2023ko urtarrilaren 11n egindako bilkuran analizatu eta eztabaidatu ziren; deialdiko eskakizunak betetzen ote zituzten aztertu eta eskabideak baloratu eta lehenetsi ondoren, deialdia ebazteko proposamena aurkeztu zitzaion Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariari, non bi (2) eskabideen atzera egitea onartzeko, baldintzak betetzen ez zituzten zortzi (8) eskabideak ezesteko eta gainerako hogeita bata (21) onesteko proposatzen baitzen, eskabideetako bakoitzak lortu zuen puntuazioaren arabera.

Era berean, kontuan hartuta urriaren 1eko 39/2015 Legearen 57. artikulua xedatutakoa, alegia, administrazio-egintzak metatu ahal direla oinarri bera edo lotura estua duten beste batzuekin organo berak ebatzi behar badu prozedura, aipaturiko batzordeak organo horri proposatu zion dirulaguntzaren ehuneko 100 ordaintzeko, lehen eta bigarren ordainketak batuta (ehuneko 50 + ehuneko 50).

Deialdian ezarritako prozeduraren arabera, eta Tokiko Gobernu Batzarraren 2022ko uztailaren 1eko erabakiaren ildotik, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak du eskabideak ebazteko eskumena.

Horrenbestez, udal aurrekontuetan nahikoa kreditu-zuzkidurarik badagoenez, eta Hautatze eta Jarraipen Batzordeak egindako proposamena aintzat harturik, Ekonomia Sustapenaren, Enpleguaren, Merkataritzaren eta Turismoaren Saileko zinegotzi ordezkariak,

Hau ebatzi du

Lehen. G79111795 eta G01525880 interesdunen atzera egiteak onartzea, eta Vitoria-Gasteizen ekitaldi eta biltzarrak antolatzeko eta hiria kanpoan sustatzeko 2022ko laguntzen udal-programan eskatutako laguntza ekonomikoa ukatzea honako eskatzaile hauek, deialdiko baldintzak ez bete-tzeagatik:

EZETSIAK		
ESKABIDE ZENBAKIA	IFK/NAN	UKATZEKO ARRAZIOA
3	G01541259	2. oinarria. Kirol jarduera hutsa
15	G67917450	2. oinarria. Kultura jarduera hutsa
19	G01504927	2. oinarria. Kultura jarduera hutsa
26	G95286597	2. oinarria. Kultura jarduera hutsa
10	G01513746	8. oinarria. Ez du gutxieneko puntuazioa lortu
27	G01581644	8. oinarria. Ez du gutxieneko puntuazioa lortu
23	G01172725	8. oinarria. Ez du gutxieneko puntuazioa lortu
20	Q4800667J	8. oinarria. Ez du gutxieneko puntuazioa lortu

Bigarrena. Deialdiaren eskakizunak betetzen zirela egiaztatu eta eskabideak baloratu eta lehenetsi ondoren (9. eta 10. oinarriak), laguntza hauek ematea eta ordaintzea, 2022an Vitoria-Gasteizen ekitaldi eta biltzarrak antolatzeko eta hiria kanpoan sustatzeko laguntzak emateko udal programaren baitan:

2. ILDOA: VITORIA-GASTEIZ KANPOAN PROMOZIONATZEA TURISMO-HELMUGA IRAUNKOR GISA					
ESKABIDE ZENBAKIA	IFK/NAN	PUNTUAZIOA	LAGUNDU DAITEKEEN INBERTSIOA	DIRULAGUNTZA TEORIKOA	EMANDAKO LAGUNTZA
14	A01281187	88	2.400,00 €	2.400,00 €	2.400,00 €
21	G01039338	84	6.623,94 €	6.000,00 €	6.000,00 €
17-2. proiekt.	G01530161	80	163,65 €	163,65 €	163,65 €
5	G01047760	77	2.175,27 €	2.175,27 €	2.175,27 €
6	G01505684	73	4.678,80 €	4.678,80 €	4.678,80 €
7-1. proiekt.	B01332733	56	1.898,10 €	1.898,10 €	1.898,10 €
7-2. proiekt.	B01332733	53	1.891,43 €	1.891,43 €	1.891,43 €
<b>Dirulaguntza teorikoaren zenbatekoen batura, guztira</b>				<b>19.207,24 €</b>	<b>19.207,24 €</b>
<b>2. ildoaren aurrekontua, guztira</b>				<b>30.000,00 €</b>	<b>300.000,00 €</b>
<b>2. ildoaren aurrekontu-saldoa</b>				<b>10.792,76 €</b>	<b>10.792,76 €</b>

10. oinarrian ezarritako arauen arabera enpresa bakoitzari dagokion "dirulaguntza teorikoa" kalkulatu ondoren, egiaztatu da 2. ildoari dagozkion dirulaguntzak batuta, ez dela horretarako aurreikusitako aurrekontu-kreditua agortzen (30.000,00 euro). Beraz, 5. oinarrian ere ezarritakoaren arabera, onartu egiten da Hautatze eta Jarraipen Batzordeak egindako proposamena, hots, laguntza hauetarako 1. ildoko kreditua handitzea 2. ildoan soberan dagoen kredituarekin (10.792,76euro) deialdiko saldoa agortu arte.

1.ILDOA: VITORIA-GASTEIZ KANPOAN PROMOZIONATZEA TURISMO-HELMUGA IRAUNKOR GISA					
ESKABIDE ZENBAKIA:	IFK/NAN	PUNTUAZIOA	LAGUNDU DAITEKEEN INBERTSIOA	DIRULAGUNTZA TEORIKOA	EMANDAKO LAGUNTZA
11	B01395698	91	40.889,19 €	15.000,00 €	15.000,00 €
12	G01241876	81	26.857,47 €	15.000,00 €	15.000,00 €
17-1. proiekt.	G01530161	78	5.550,18 €	5.550,18 €	5.550,18 €
13	A01036102	78	4.421,34 €	4.421,34 €	4.421,34 €
8	B01345909	78	32.560,08 €	15.000,00 €	15.000,00 €
9	G01010230	78	7.264,37 €	7.264,37 €	7.264,37 €
28	G01565522	77	2.951,67 €	2.951,67 €	2.951,67 €
4	G02818292	76	16.945,61 €	15.000,00 €	15.000,00 €
18	G01037175	62	13.785,91 €	13.785,91 €	605,20 €
1-1. proiekt.	B01373489	60	11.281,62 €	11.281,62 €	0,00 €
16	G58952805	59	23.795,76 €	15.000,00 €	0,00 €
2	B01335447	58	3.102,14 €	3.102,14 €	0,00 €
22	G01039114	57	865,00 €	865,00 €	0,00 €
1-2. proiekt.	B01373489	55	12.589,52 €	12.589,52 €	0,00 €
<b>Dirulaguntza teorikoaren zenbatekoen batura, guztira</b>				<b>136.811,75 €</b>	<b>80.792,76 €</b>
<b>1.ildoaren aurrekontua, guztira</b>				<b>70.000,00 €</b>	<b>80.792,76 €</b>
<b>2.ildoaren soberakina</b>				<b>10.792,76 €</b>	<b>0,00 €</b>
<b>1.ildoaren aurrekontu-saldoa</b>				<b>80.792,76 €</b>	<b>0,00 €</b>

Hirugarrena. Emandako dirulaguntza horien guztien zenbatekoa (100.000,00 euro) jasota uztea, 2022rako onartutako udal aurrekontuko 0810.4331.471.04 partidaren kontura (5. oinarria), eta onuradunei emandako laguntzaren ehuneko 100 ordaintzea onestea, deialdiko 11. oinarrian ezarritakoari jarraiki.

Laugarrena. Laguntzen onuradunek deialdiaren oinarrietan ezarritako betebeharrak betetzen ez badituzte, bertan behera utzi ahal izango dira laguntzak, eta, ordainduta badaude, jasotako diru-kopurua itzultzeko eskatuko zaie.

Bosgarrena. Udalaren Biltzar eta Turismo Zerbitzuko teknikariak izendatzea turismo edo biltzarrak sustatzeko proiektu horien jarraipenaren arduradun.

Seigarrena. Erabaki hau udalaren webgunean, ALHAOn eta Dirulaguntzen Datu-base Nazionalan argitaratzea.

Zazpigarrena. Diruz lagundutako pertsonei erabaki honen berri ematea, eta orobat jakinaraztea erabakiaren kontra, administrazio-bidea agortzen baitu, zuzenean aurkez daitekeela administrazioarekiko auzi errekurtsioa Vitoria-Gasteizko administrazioarekiko auzietarako epaitegietan, bi hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik kontatuta.

Nolanahi ere, aldeztu aurretik aukerako berraztertze errekurtsioa aurkez daiteke erabakia hartu duen organoaren aurrean, hilabeteko epean, jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik —kasu horretan, ezingo da administrazioarekiko auzi-errekurtsorik aurkeztu hori berariaz edo ustez ebatzi arte—. Ondoren, berariazko ebazpena ematen bada, administrazioarekiko auzi-errekurtsioa aurkeztu ahalko da bi hilabeteko epean, egintza jakinarazi edo argitaratzen den egunaren biharamunetik; bestela, edozein unetan aurkeztu ahalko da, araudi espezifikoaren arabera administrazioaren isiltasunaren ondorioak sortzen diren egunaren biharamunetik aurrera.”

Vitoria-Gasteizen, 2023ko urtarrilaren 12an

*Administrazio-Zerbitzuko burua*  
IGNACIO CEPEDA CRESPO